

		ESP. KODEA.	2017IDBO0020
ESPEDIENTEA			
TITULARRA		BEASAINGO UDALA-Pertsonal Saila	
TOKIA			

**BEASAINGO UDALERRIKO HIRI-ANTOLAMENDURAKO PLAN OROKORRA IDAZTEKO
ZERBITZUA EMATEKO KONTRATUAREN ADMINISTRAZIO KLAUSULA BEREZIEN
PLEGUAREN AZALA**

1. KONTRATUAREN HELBURUA ZEHAZTEA.

Idazketa eta udal aholkularitza lanak Beasaingo udalerriko Hiri-antolamendurako Plan Orokorra eratzeko.

Lotetan banatzea: EZ

CPV kodea: 71200000-0

Kontratuaren kategoria (SPKLTBko II. eranskina): 12

2. ORGANO KONTRATATZAILEA

Beasaingo Udala.

3. - LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA ETA HURA ASETZEKO KREDITUA.

Aurrekontua: 340.000,00 euro gehi 71.400,00 euro (B.E.Z). Guztira 411.400,00 euro.

Kontratuaren prezioaren % 20,18 ordaintzeko 2017ko aurrekontuko 5000.642.151.00.01 partidan dago. Gainerakoarentzat, konpromiso-kredituak daude 2018., 2019. 2020. eta 2021 urteetarako.

4. KAUDIMEN EKONOMIKOA NAHIZ PROFESIONALARENTZAT GUTXIENEO BALDINTZAK.

Kaudimen ekonomikoa: arrisku profesionalen gaineko kalte-ordainen aseguru bat izatearen ziurtagiria izatea, 250.000,00 €koa. Baldintza hau beteta dagoela ulertuko da, lizitatzailer edo izangaiak bere eskaintzarekin batera asegurua egingo duenaren konpromisoa aurkeztu ezker esleipenduna suertatzen bada.

Hauek dira kontratazio honetan parte hartzeko, gutxienez, eskatzen diren giza baliabideak:

- Taldeko arkitekto, zuzendari bat.
- Aholkulari juridiko bat, zuzenbidean lizentziatua.
- Ingurumen arloko teknikari bat edo enpresa profesional espezializatua.
- Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniaria.
- Topografiako teknikaria edo enpresa profesional espezializatua.
- Teknikaria, gizarte izaerako betebeharrak betearazteaz arduratuko dena edo enpresa profesional espezializatua.

- Komunikazioko teknikaria edo enpresa profesional espezializatua.

Taldeko zuzendariak (arkitektoa) jarraian aipatzen diren lan moten artean, gutxienez bi (2) lan taldeko zuzendari/koordinatzaile/arduradun modura burutu izana egiaztatu beharko du, Administrazioaren ziurtagiriaren bidez, plangintza orokorrarekin lotuta eta proposamenak aurkeztzen diren egunean behin betiko onarpena izanik:

7.000 biztanletik gorako udalerriari dagokion Hiri-antolamendurako Plan Orokorra.

7.000 biztanletik gorako udalerriari dagokion Arau Subsidiarioen berrikuspena.

Lizitaziora aurkeztzen direnek ekipoaren zuzendariak gain, beste arkitekto batek taldeko partaide izateko proposamena aurkeztu ezkeror, honen eskarmentua planeamenduko orokorrak egiteari buruzkoa ere kontablizatuko da, goian aipatutako moduan izan bada.

Aholkulari juridikoak aurrez adierazitako lan moten artean (baldintza berdinetan), gutxienez bat (1) taldeko aholkulari juridiko modura burutu izana egiaztatu beharko du, Administrazioaren ziurtagiriaren bidez, plangintza orokorrarekin lotuta.

5. KONTRATUA GAUZATZEKO BEHARREZKOA DEN ENPRESA- EDO LANBIDE-GAITASUNA

Erredakzio taldea diziplinartekoa izan beharko da derrigorrez eta, gutxienez, baldintza teknikoen pleguko laugarren atalean xedatzen den moduan osatuko da.

6. SAILKAPENA

Badago halakorik: Ez

7. ESLEIPENA EGITEKO PROZEDURA

Izapidea: Arrunta

Prozedura: Irekia

Esleipen-irizpideen pluraltasuna

8. KONTRATUAREN ESLEIPEN-IRIZPIDEAK ETA HORIEN HAZTAPENA

Matematikoki zenbatu ezin diren irizpideak (B gutun-azala):

a) Memoria-diagnosia: gehienez, 45 Puntu.

- Egungo egoeraren azterketa, arazo garrantzitsuenak adieraziz. Atal honetan udalerrian ebatzi gabeko arazoen detekzioa nahiz udal araudian bertan ebazteko gabeziak, kontradikzioak edota bestelako alderdiak balioetsiko dira (17 puntu).

- Udalerriaren egoera aplikagarri diren udalaz gaindiko arauen ikuspegitik (10 puntu).

- Datozen urteetarako kontuan hartzeko esku-hartzeko proposamen eta jarraibideak, hala dagoeneko garatutako eremuetan nola garatzeke daudenetan, edo ez urbanizagarrietan (10 puntu).

- Egungo egoerari buruz egindako azterketaren eta esku-hartzeko planteatutako proposamen eta jarraibideen arteko koherentzia (8 puntu).

Aurkezteko dokumentazioan dokumentu grafiko eta idatzizkoa barnera daiteke. Gehienez, 2 aurpegitan idatzitako 10 orriko dokumentu bat aurkeztu ahal izango da, hizkiaren gutxienerako tamaina arial 10 izanik eta formatua A4 izanik, eta 8 plano. Planoen kasuan, gehienez A0 tamaina finkatzen da. Gehienez ezarritako orrialde kopuruaren edo elementuen gainetik, hurrenez hurren, 5 orrialdeko, edo zatiko, edo plano bakoitzeko -2 puntuko zigorra aplikatuko da.

b) Metodologiaren proposamena: gehienez, 25 Puntu.

Horretarako, lanak gauzatzeari buruzko Plan bat eratuko da, honakoak barneratuz:

- Lanetan erabiliko den metodologia azaltzen duen memoria (Udaletxe kanpoan nahiz barnean egiteko lanen antolaketa, koordinazioa azpikontrataturako enpresekin, kudeaketa arloko konpetentziak dituzten erakundeekin, etab.), lizitatzailleak egiteko konpromisoa hartu duen guztia argi eta zehaztasunez adierazita, herritarren partaidetza barne (9 puntu).
- Lanak gauzatzeko egutegi osoa, pleguan ezarritako epe partzialekin bateragarria. Atal honetan lan ezberdinak gauzatzeko epe partzialen programazioa eta estimazioa balioetsiko dira. Horretarako, eskaintza metodologikoari dagokionez, plegu honetan barneratutako hobetzea eragiten duten programaturako lanen hileko estimazioa eta metatua egingo da (9 puntu).
- Parte hartu behar duen lantaldearen deskribapena, hala badagokio, azpikontratatzea aurreikusten den kontratuaren zatia adieraziz. Bertan portzentajea adierazi beharko da eta azpikontratataren izena edo enpresa-profila identifikatu beharko da. Hori guztiori, faseka zehaztuta (7 puntu).

Dokumentazioan dokumentu grafiko eta idatzizkoa barnera daiteke. Gehienez, 2 aurpegitan idatzitako 10 orritan garatu beharko da, hizkiaren gutxieneko tamaina arial 10 izanik eta formatua A4 izanik. Elementu, grafiko edo taularen bat argitasun gehiagorik islatzeko asmoz orrialde kopuru handiagoa beharrezkotzat jotzen bada, gehienez, 2 orrialde onartuko dira, A3 tamainan. Gehienez ezarritako elementu kopurua gainditzen denean, 5 orrialde edo zati bakoitzeko, -2 puntuko zigorra aplikatuko da (20 A4 eran eta 2 A3 eran).

c) Herritarren partaidetzarako proposamen eta mekanismoak, plegu teknikoaren 8. artikuluan xedatutakoaren osagarri. gehienez, 10 Puntu.

Dokumentazioan dokumentu grafiko eta idatzizkoa barnera daiteke. Gehienez, 2 aurpegitan idatzitako 6 orritan garatu beharko da, hizkiaren gutxieneko tamaina arial 10 izanik eta formatua A4 izanik. Elementu, grafiko edo taularen bat argitasun gehiagorik islatzeko asmoz orrialde kopuru handiagoa beharrezkotzat jotzen bada, gehienez, 2 orrialde onartuko dira, A3 tamainan. Gehienez ezarritako elementu kopurua gainditzen denean, 5 orrialde edo zati bakoitzeko, -2 puntuko zigorra aplikatuko da (12 A4 eran eta 2 A3 eran).

ATALASEA: ezartzen da.

SPKLTBko 150.4 artikulua arabera, osotasun baliora onartua izateko, matematikoki zenbatu ezin diren irizpideetan eta zehazki, memoria diagnosian, lizitatzaillei eskatuko zaie atalase maila batetara iristea, hau da, Kontratazio Mahaiak ez ditu kontuan izango atal horretan (memoria diagnosia) lizitatzailleek puntu hauek ez badituzte lortzen: 20 PUNTU.

Matematikoki zenbatu ezin diren irizpideetan, memoria diagnosia da, hain zuzen ere, eskaintzari zehaztasuna ematen diona, Beasaingo udalerriri buruzkoa izan behar duelako eta ez beste udalerriri bati buruz. Beraz, garrantzitsua da aurkeztutako eskaintzaren kalitatea adierazteko.

Matematikoki zenbatu daitezkeen irizpideak (C gutun-azala):

a) Eskaintza ekonomikoa: gehienez, 20 Puntu.

Eskaintza ekonomikoa atxikitako formularekin bat etorri balioetsiko da. Formula horren arabera gehienezko puntuazioa (20 puntu) emango zaizkio eskaintza ekonomiko baxuenari, baldin eta neurri kanpokatzen jotzen ez bada, eta eskaintza horren balioetik behera daudenei, eta gutxieneko puntuazioa (0 puntu) emango zaio lizitazio-aurrekontuari.

Muturreko balio horien artean dauden aurrekontu-eskaintzen balioespena dagozkion muturreko balioen interpolazio lineala eginez lortuko da, kontuan hartuz honakoa:

P.L.	Lizitazioaren aurrekontua
O.E.M.B	Neurri kanpoko ez den eskaintza ekonomiko baxua
O.E.x	x enpresaren eskaintza ekonomikoa
V.max.	Gehienezko balioespena
Vx	x eskaintzaren balioespena, emaitza hau izanik:

$$V_x = V \cdot \max x [(PL - O_{ex}) / (PL - O_{EMB})]$$

Neurriz kanpoko balioak dituzten eskaintzak: Neurrigabekotzat joko dira aurkeztutako proposamen guztien behe-portzentajeen batez besteko aritmetikoen azpitiko portzentajezko 10 puntuko behe agertzen duten eskaintzak. Edonola ere, portzentajezko 20 unitatetik gorako beheak neurritz kanpokotzat joko dira.

Aurkezteko modua: Pleguaren I. eranskineko eredua.

Bi proposamen edo gehiagok puntuazio bera jasotzen dutenean, esleipenerako lehentasuna emango zaio "Memoria-diagnosia" atalean puntuazio gehien jaso duen lizitatuileari. Berdinketa mantentzen bada, "metodologia" atalean puntuazio gehien jaso duen lizitatuileari emango zaio lehentasuna, eta ondoren prezioari erreparatuko zaio. Berdinketak jarraitzen badu, zozketa egingo da.

9. ADITUEN BATZORDEA ERATZEA

Pertsona hauek osatuko dute:

- Udal arkitektoa.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Hirigintza Zerbitzuko arkitekto funtzionarioa.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Hirigintza Zerbitzuko aholkularitza juridikoko funtzionarioa.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Zerbitzuko funtzionario teknikaria.

10. ESKAINTZAK AURKEZTEKO LEKU ETA EPEA

Udalaren Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira 8:00-14:00ra bitartean, 2017-09-29ra (data hau barne).

11. DOKUMENTAZIOA AURKEZTEKO MODUA

Hiru gutun-azal aurkeztu beharko dira, jarraian adierazten den modua errespetatuz:

a) A gutun-azala: Administrazioko dokumentazioa

Kontratua arautzen duen Administrazio Klausula Berezien Pleguko 19. klausulan eskatzen den dokumentazioa barneratuko da, aurkeztutako dokumentu guztiak zenbaki bidez zerrendatzen dituen aurkibide-orri bat gaineratuta.

b) B gutun-azala: formula bidez ebaluatu ezin diren irizpideak

Orriak behar bezala zenbatuta eta ongi antolatutako *dosier* bat aurkeztuko da. Bertan Azal honetako 8. puntuan deskribatutako dokumentazioa barneratu beharko da.

c) C gutun-azala: formula bidez ebaluatzeko irizpideak

Eskaintza ekonomikoa Administrazio Baldintzen Pleguaren 1. eranskineko ereduaren arabera aurkeztuko da.

Gutun-azal guztiak datu hauekin identifikatu beharko dira:

BEASAINGO	UDALERRIKO	HIRI-ANTOLAMENDURAKO	PLAN
OROKORRA IDAZTEKO ZERBITZUAK.			
GUTUN-AZALA (<i>adierazi A, B edo C, dagokion moduan</i>)			
DOKUMENTAZIOA: (<i>dagokion atalean adierazitakoaren arabera dagokion izena adierazi</i>).			
Izen soziala:			
Helbide soziala:			
Pertsona ahalordedunaren izena:			
komunikaziorako posta elektronikoa:			

Harremanetarako telefonoa:
Faxa:

12. DOKUMENTAZIO ADMINISTRATIBOA AZTERTZEKO LEKUA

Espedientea udaletxeko Idazkaritzan aztertu ahal izango da, eta kontu teknikoak Eremu Teknikoan argitu ahal izango dira.

13. BEHIN-BEHINEKO BERMEA

Ez.

14. BEHIN BETIKO BERMEA

Badago halakorik: BAI:

Zenbatekoa: Kontratuaren esleipen-zenbatekoaren % 5, BEZ kanpo.

15. ASEGURU-POLIZA

Badago halakorik: Esleipendunak arrisku profesionalengatiko kalte-ordainen aseguru bat (gutxienez, 250.000,00 eurokoa) aurkeztuko du, hurrengo bermeok barneratuz:

- Ustiatzeko erantzukizun zibila.
- Dokumentu eta espedienteei eragindako kalteak barneratzen dituen erantzukizun zibil profesionala.
- Lan-istripuengatiko erantzukizun zibila.

16. ALDAEREN ONARGARRITASUNA

Badago halakorik: EZ

17. ORDAINKETA MODUA

Ordainketa lanen entrega partzialen ondotik egingo da, jarraian adierazitako portzentajeetan:

- 1.- % 5 administrazio-kontratua formalizatzean.
- 2.- % 15 lehen faseari dagokion dokumentazioa entregatu eta onartu ondoren.
- 3.- % 10 bigarren faseari dagokion dokumentazioa entregatu eta onartu ondoren.
- 4.- % 5 hirugarren fasea burutu ondoren.
- 5.- % 35 laugarren faseari dagokion dokumentua entregatu eta onartu ondoren.
- 6.- % 5 bosgarren faseari dagozkion lanak entregatu eta onartu ondoren.
- 7.- % 5 seigarren faseari dagokion dokumentua entregatu eta onartu ondoren.
- 8.- % 10 edo, hala badagokio, % 15 informazio publikoa berriro egitea beharrezkoa izan ez bada, zazpigarren faseari dagokion dokumentua egin eta onartu ondoren.
- 9.- Gainerako zenbatekoa administrazio-bidea erabiliz Planaren behin betiko onarpenaren aurka jarritako balizko errekurtsoen txostena egin ondoren edo haiek jartzeko epea igaro ondotik ordainketako da.

Ordainketa legezko epeetan egingo da, behin fakturek teknikariaren eta dagokion kargu politikoaren oniritzia jaso ondoren.

18. PREZIOEN BERRIKUSPENA

Ez dago halakorik.

19. BERME-EPEA

Kontratuaren xedea den prestazioa amaitu eta, beranduenera, hilabeteko epean haren harrera-ekitaldi formal eta positiboa egingo da, kontratuaren arduradunak burutuko duena, aurreko puntuan adierazitakoaren arabera.

Onarpen formala egiten den egunetik hasita urte bateko epea ezartzen da Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategineko eta Herri Administrazioen Kontratuen Legeko Araudi Orokorrean aurreikusitako ondorioetarako bermetzat.

Berme-epe honetan kontratista izango da burututako lanketa edo prestazioetan sor daitezkeen akats edo kalteen erantzule.

Epe hori Administrazioaren aldetiko inolako ohartarazpenik gabe igarota, kontratistaren erantzukizuna amaitutzat emango da.

20. LIZITAZIO PUBLIZITATE-GASTUAK

Esleipendunaren kontura.